Bruselas, 1967-ko Apirillaren 4

Agur adiskide:

Huntan bukatu da barneko burruka: partida arras galdu dugu. Felipistak garaitu ditugu, baina Komunista abertzaleak ez. Komunisten jokoa segi baino ateratzea hobe dala erabaki dugu.

Komunistak zer diran geuk ikasi dugu. Ba genekien, baina berriz ikasi dugu. Soiñurik atera gabe daraz nagusitu dira, atzerakoiak ("reaccionarios") alde batera utzi gaituzte, eta kitto. Bestetik, berriz, berak ez dira Komunistak, eta ez ezer: berek "herriak nahi duena" egingo omen dute. Esaten dutenez gero ez da diktadurarik batere izango; baina erakundearen barruan gure iritziak... zakarretara joan dira: bai Pako'ren garaietan eta bai oraingoetan. Ba dakit harritzen ez zerana. "Científico" horiek on egoki astindu dituzte orain dala gutxi. Eta hala da: mesianismo hori, fanatismo hori, guztiz guztiz da beren ezagugarri NAGUSIA. Ez dago ezer egiterik berakin. "XX-garren mendeko Islam" deitu dituenak ongi ezagutzen ditu!

Zure berri izan nahiko nuke. Ba dakizu, beraz: ahal duzunean atzerrian bizi geran gutaz oroi zaitez.

Besarkada batekin